

9. (1411-1420)



9.1. 1411. URTEA

9.1.1. Iraetako eta Oñatiko jauntxoak, Nafarroa eta Gipuzkoa

1411-VIII-11n Lekeitioko hiribilduko Kontzejuko ordezkariak eta Berriatuko elizatekoen ordezkariak Aretxukaondoko mugak zehaztu eta inguruko mendiak ustiatzeko arauak ezarri zituzten. Berriatuko elizatekoek beren ordezkariak izendatzeko agirian (1411-VIII-5ekoan) lekukoetako bat Beltran Ibañez Iraetakoa zen, "Oñatibia" goitzenekoa. Beltran Ibañez Iraetakoa 1399-XII-18ko Gernikako agiri batean ere azaldu zitzaigun. Orduan Markina-Xemeingo Amalloa auzoan bizi zen, eta pertsona bera da, gure ustez, Berriatun azaltzen zaigun hau¹.

Oñatiko jaunak ere, Pedro II.a Belez Gebarakoak, 1411. urtean konponduezinak zituen Arrasateko hiribildukoekin. Pedro Belezek Arrasateko Zalgibarren (orain Zaldibar deitzen diote) zeukan dorre eta ondatsunengan jurisdikzioa eskatzen zuen. Arrasatearrek, ordea, ez zuten onartzen, eta prest zeuden gebarata-

ren gizonak preso hartzeko borroka hasten baldin bazen. Hala ere, dorrearen ondoan ez zuten etxerik eraikiko eta gebaratarrek inguruan zituzten dolare, lur, burdinola eta errotak errespetatu egingo zituzten². Gatazka hura zela medio, erregearen Gortean auzia zuten, eta 1411-X-9an arrasatearrek agiria egin zuten beren prokuradoreei aginduak emanez³.

Nafarroak ere gatazka zuen 1411. urtean Gipuzkoarekin; izan ere, otsailaren 17an gipuzkoarrek Ordizian desafio egin baitzioten Nafarroari. Ondoren, hildakoak izan ziren elkarren arteko liskarretan⁴.

Garai hartan Iruñeko katedralak saroiak zituen Donostian eta Hernanin, Urumea ibaiaren arroan. Katedralako artxidiakonoaren eta aipatutako bi hiribilduen artean ituna egin zuten 1411n⁵.

Nafarroan urte hartan beste arazo bat ere izan zuten. Izurrite beltzak, izan ere, gogor kutsatu zuen biztanleria⁶.

9.1. irudia.
Arrasateko plaza.



9.2. 1412. URTEA

9.2.1. Mugakoen eta bandoen arteko borrokak, Debako Ordenantzak, etab.

1412. urtean, aurreko urtean gipuzkoarrek Ordizian nafarrei egindako desafioaren ondorio kaltegarriak ari ziren pairatzen. Elkar hiltzen ibili ziren, harik eta Gaztelako Joan II.a erregeak 1412-II-6an Valladoliden sinatuta bidalitako agindua etorri zen arte. Erregeak debekatu egin zuen batzuk besteen erreinura sartzea. Bestela Ermandadeko alkateek foruak edo zuzenbideak ahalbidetzen zuen zigorrik handiena ezarriko zieten gaizkileei. Ermandade-alkateak behartuta zeuden delitugileak atxilotu eta jatorrizko erreinuko ermandade-alkateen esku uztera. Halaber, agindu hura Ermandade-koadernoan beste kapituluei erantsi beharra jakinarazi zien erregeak⁴. Gaztelako eta Nafarroako erreinuen arteko akordioa izan zen hura⁷.

Gipuzkoarren eta bizkaitarren arteko borrokak ere izan ziren 1412. urtean. Martin Ruiz Abendañokoa Orozkoko bailarara sartu zen bere soldadu guztiekin. Orduan Maria Sarmiento andreak (Aiarako eta inbaditutako bailarako Fernando Perez Aiarakoa jaunaren emazteak) Aiarako ahaide guztiei dei egin zien. Laguntzera, besteak beste, hauek joan zitzaizkion: Pedro II.a Belez Gebarakoa, Antso Santxez Belaskokoa, Antso Leiba, Otxoa Zaraitzukoa, Salzedoko zamudiarrak, etab. Maria Sarmientoren lagunek Aretxabaletan setiatu egin zuten Abendañokoaren taldea, baina Abendañokoaren alde borrokatzera Joan Alonso Muxikakoa bere laguntzaile guztiekin etorri zen. Liskarretan aiarraren lau lagun eta alkate bat hil ziren.

Erregearen aginduz Bizkaiko Gonzalo Moro korrejidoreak parte hartu zuen. Su-etena ezarri zuen, eta Martin Ruiz Abendañokoari arrazoi eman zion, familiako herentziagatik Orozkoren herena zegokiolako.

Borroka haietan parte hartutako bat Oñatiko jauna dugu, Pedro II.a Belez Gebarakoa. Gertaera haietan ibili zela aipatzen da, baina harrezkero ez da inongo agiritan azaltzen. Hiru urte geroago Pedro III.a Belez Gebarakoa azaltzen da agirietan. Beraz, bitarte horretan hilko zen Pedro II.a².

1412-XII-12an Debako Kontzejuak, Andre Mariaren eliz atarian bilduta, Udal-ordenantza berriak onartu zituzten. 48.etik 54.erainoko ordenantzak erantsi zizkieten aurrez zituztenei⁸.

Urte hartan Bizkaiko itsasoaren kostaldeko herrietatik (besteak beste, Bizkaitik eta Gipuzkoatik) itsasontziak joan ziren Portugalgo erregearen ontzidiarekin batera Ceutari erasotzera. Handik ontzi batzuk Kanarietara abiatu ziren⁹.



9.2. irudia. Debako udaletxea.

9.3. 1413. URTEA

9.3.1. Ahaide Nagusien desafioak, eta Azkoitiko Ordenantzak

1413. urtean Gontzalo Ganboa eta Otxoa zein Martin Murua jauntxoek Segurako hiribilduari desafioa egin zioten². Desafioa, azken batean, Ahaide Nagusiek beren boterea erabiltzeko era zen. Zenbait kasutan legez ez zeukaten desafio egiterik. Burdinolei desafio egitea, adibidez, 1397. urteaz gero debekaturik zuten, baina bistan da hiribilduetako Kontzejuei egiten zietela 1413an¹⁰.

Joan Perez Loiolakoa, Beltran Ibañez Loiolakoaren semea, Gaztelan hil zen Diego Lopez Estuñigakoaren etxean. Ez zuen seme-alabarik izan, eta ondasunak Santxa Ibañez Loiolakoak jaso zituen

oinordetzan. Santxa Ibañez 1413-III-4an ezkondu zen Lope Gartzia Lazkanokoarekin¹¹.

Esteban Garibai historialariak dioenez, Arrasaten bazen gaztelu gotorra, diotenez Nafarroako Antso Gartzes II.a *Abarka* erregeak (970-994) eraikiarazia, baina 1413. urtean Gaztelako Joan II.a erregeak erais-tea agindu zuen¹².

1413-III-19an Azkoitian Kontzejuan bilduta hiru talde elkartu ziren: harresi barruan bizi zirenak, harresi kanpo herri inguruan bizi zirenak, eta Udalerriko lurretan bizi zirenak. Denak hiribilduko jurisdikziopean egongo ziren. Kontzejuko karguak nola hautatu, zergak nola ordaindu, larreez nola baliatu, etab. erabaki zuten. Horretarako Ordenantzak egin zituzten.




9.3. irudia. Azkoitiko Idiakaitz jauregia edo "Etxebeltz".

Dena den, Kontzejura etorritako batzuk hauek izan ziren: Pero Lopez “Cornostaryçaga”koa eta Martin “Cornostariçaga” (gure ustez Zornoztaritzaga, Zestoako Zornotza edo oraingo Zorrontza gogorarazten duena), Martin Santxez Lasaokoa (Zestoatik Azkoitira bizitzera joana, inola ere), Joan Lopez Iraetakoa (aurreko lasaotarra bezalaxe Azkoitira bizitzera joana), Joan Zestona eta Martin Ruiz Idiakaizkoa (“Ediacaetz” dio agirian). Aipatutako lehen hirurak Azkoitiko harresi barruan bizi ziren, eta azken biak harresiz kanpo, baina hiribilduaren inguruan¹³.

Ez da ahaztu behar 1380-II-9an (ikus [XIV. m. 3] agiria) Azpeitian bizi zen Migel Lopez Idiakaizkoa (edo Ibiakaizkoa) eta Zumaian bizi zen Joan Ruiz Idiakaizkoa (edo Ibiakaizkoa) azaldu zirela. 1385-V-12an, 1385-VII-18an eta 1394-II-2/3an, berriz, Joan Lopez Ibiakaizkoa (edo Idiakaizkoa) Azpeitiko eskribaua azaltzen zaigu (ikus [XIV. m. 8], [XIV. m. 9] eta [XIV. m. 17] agiriak). 1396-XI-20an Alkizan sinatutako agiri batean Martin Ibañez Idiakaizkoa, Anoetako (“Ahanoeta”) biztanlea azaltzen da lekuko gisa¹⁴.

Gure ustez pertsona hauek Idiakaitz deitura, agian Anoetakoak izan ezik, Zestoako Idiakaitz baserritik jasoa zutela pentsatzea egokia da. Aipatu ahal izan ditugun lehen idiakaiztarrak Azpeitian eta Zumaian agertu zaizkigu, baina, ez Azpeitian eta ez Zumaian, ez dago Idiakaitz (edo Ibiakaitz) leku-izenik. Zestoan bai, ordea, orain “Irikaitz” esaten zaiona, eta lehen aipamenaren ondoren, 33 urte geroago (1413-III-19an), topatu dugu lehen aldiz abizen bera Azkoitian¹³. Azkoitian bada orain parrokiatik gertu Idiakaitz jauregia, “Etxebeltz” esaten zaiona.

9.4. irudia. Zestoako Idiakaitzen aurriak.



9.4. 1414. URTEA

9.4.1. Gosetea, Ahaide Nagusiak eta Konstantzako Kontzilioa

1414. urtean, Gonzalo Moro korrejidore zela, Gipuzkoan gosetea izan zuten, zereal falta zela medio¹⁵. Getarian, gosetea ez ezik, izurrite beltza ere izan zuten¹⁶.

Urte hartan Ahaide Nagusiak bandoen arteko gerran zebiltzan. Bizkaian liskarretan Otxandio erre egin zuten, eta Mungian borrokan aritu ziren¹⁷.

Ahaide Nagusientzat diru-iturri garrantzitsuak ziren beren elizetatik jasotzen zituzten hamarren eta hasikinak. Elizen jabe pribatu eta patroik gisa, hamarrenak jasotzeko eta bertarako apaiza aurkezteko eskubidea beti aldarrikatu zuten, eta 1414. urtean Gipuzkoako jauntxoei Lantzelot Nafarroakoak berretsi egin zizkien eskubide haiek. 1414-II-6an Loiolako jaunak, Lope Gartzia Lazkanokoak, eta Lantzelotek ituna sinatu zuten Azpeitiko Soreasuko parrokiako

patronatuaz. Loiolako jaunen esku geratuko zen patronatua, eta Martin Erkizia izango zen Soreasuko erretoa¹¹. 1414-III-18an Soreasuko elizaren atarian, Lope Meoz Iruñeko ofiziala eta batxilerra aurrean zela, Martin Erkizia eskutik helduta Lope Gartzia Lazkanokoak, Loiolako jaunak, sartu zuen elizara¹⁸.

Oñatin, berriz, Pedro III.a Belez Gebarakoa gazteak hartu zuen oinordetzan etxeko agintaritza. Pedro II.a Belez aitaren ondoren izan zen Ahaide Nagusi².

1414-XII-5ean, bestalde, Alemaniako Konstantza hirian Eliza katolikoaren Kontzilioa hasi zen. Lau urte iraun zuen. 1414. urtean hiru Aita Santu zeuden: Pisako Joan XXIII.a, Avignongo Benedikto XIII.a eta Erromako Gregorio XII.a. Lehen biek kargua utzi egin zuten, baina Benedikto XIII.ak ez. Eskozia, Nafarroa, Gaztela eta Aragoiko erreinuak eta Foix zein Armagnac-eko konderriak ziren Avignongo Aita Santuaren euskarri¹⁹.

9.5. 1415. URTEA

9.5.1. Donostiako Batzar Nagusiak

1415-II-1ean, Gipuzkoako prokuradoreak Donostian bilduta, Batzar Nagusiak ospatu zituzten. Gaztelako Joan II.a erregeak Joan Velazquez Cuellarkoa bidali zuen korrejidore, eta harekin bildu zen Batzarra. Batzar haietan Gipuzkoako Ordenantzei beste hamar erantsi zitzaizkien²⁰.

1415-III-3an Donostiako Batzar Nagusiek onartutako Ordenantza berriak berretsi egin zituen Joan II.a erregeak Valladoliden, eta onespren-agirian argi eta garbi ageri da Zestoatik hiribilduaren prokuradore Fernando Ezenarro (edo Zezenarro) joan zela²¹. Prokuradoreak Zestoako hiribilduan lortutako ahalordea korrejidoreari eta bi eskribauri aurkeztu zien, gainerrako prokuradoreek bezala.

Gaizkileen aurkako neurriak hartu zituzten ordenantza berri haien bidez. Gonzalo Morok bere garaian idatzitakoei beste hamar ordenantza gehitu zitzaizkien. Zenbait karguren eginkizunak gehiago finkatu ziren:

- Korrejidorea epaile agertzen da bertan, eta Gipuzkoako justiziaz arduratzen zen, zuzenean edo ofizialen bidez. Korrejidorea zen Batzarretako buru, eta bi eskribau izaten zituen inguruan. Ordenantzak ez betetzeagatik alkateei edo zinegotziei ezarritako isunen heren bat jasotzen zuen (beste bat merioak eta hirugarren herena Ermandadeak). Desafioak korrejidoreari aurkeztu behar zitzaizkion.

- Errege-alkateak korrejidorea ordezkatzeko zuten hau probintzian ez zegoenean.



9.5. irudia. Zestoako Ezenarrogoikoa baserria.

- Merioak jasotzen zituen korrejidoreak ezarrirako isunak, eta haien herena zegokion.

- Hiribilduetako alkateei ahalmena eman zitzairen Ermandadearen eran beren ikerketak egin, oinazea eman eta zigorra ezartzeko²².

9.5.2. Ahaide Nagusiak, Benedikto XIII.a, etab.

1415. urtean Oñatiko jaun eta Ahaide Nagusi gisa Pedro III.a Belez Gebarakoa azaltzen da, Pedro II.aren oinordekoa. Beste Ahaide Nagusi bat Joan Abendaño zen, erregearen baleztari nagusia. Hark Valladolidtik indarrrik gabe utzi zuen 1415-X-1ean bi urte lehenago Gonzalo Ganboa eta Otxoa zein Martin Muruak Segurako hiribilduari egindako desafioa². Joan Abendaño hiru desafiogileen Ahaide Nagusia zen¹⁰.

Erregeek Ahaide Nagusien eta gaizkileen aurkako Ermandadeak sustatu zituzten, baina inoiz Ermandadeek koroari aurka ere egin zioten. 1415. urtean, adibidez, Bizkaiko eta Enkartzioetako Ermandadeak Gonzalo Moro korrejidorearen aurka altxatu ziren; izan ere, korrejidoreak, erregearen aginduz, Bizkaitik garia atera eta Asturiasera eraman nahi zuen. Erregearen basailuei dei eginda, Erandion erraz garaitu zituen Gonzalo Morok Ermandadekoak²³.

Loiolako Ahaide Nagusiak, Lope Gartzia Lazkanokoak, 1415-IX-20an Benedikto XIII.aren bulda lortu zuen. Aurreko urtean Iruñeko Lantzelot Nafarroakoarekin egindako akordioa onesten zion Roselloko Perpinyan sinatutako agirian¹⁸. Lope Gartziak Soreasuko parrokiako patronatua bere esku zuen, eta hamarrenen hiru laurdenak jasoko zituen (1.000 dukateko errenta urtean). Erretorea aurkezteko eskubidea zuen, eta patronatuari zegozkion gainerako

eskubide guztiak ere bai. Apaizentzat arauak ezarri zituen, elizan hildakoak hobiratuko zituzten, ermitak eta bertako kapilauak kontrolatuko zituen, ermitetan dotrina irakatsiko zen, herriko ermitetan abadeek inguruko baserrietako hildakoen hiletak egingo zituzten, serorek zainduko zituzten ermitak, etab.¹¹

kargua utz zezala eskatzearren. Lehen eskea Perpinyan egin eta, handik hiru egunera (1515-XI-13an) Benedikto kostaldean Perpinyatik hegoaldera Collioure herrian zen. Han bigarren eta hirugarren aldiz eskatu zioten Aita Santu kargua utz zezan, baina berriz ere ezezkoa eman zuen. Orduan guztiek



9.6. irudia. Azpeitiko Urrestillako eliza.

1415. urtean Alemaniako Konstantza hirian aurreko urtean Eliza katolikoaren zismari amaiera ematearren hasitako Kontzilioa aurrera zihoan. 1415. urtean Kontzilioan zela, Jan Huss txekiarra sutan hiltzera kondenatu zuten heretikotzat jota.

Garai hartan Benedikto XIII.ak gero eta laguntzailer gutxiago zuen. Aragoiko Fernando I.a erregeak Narbonan Foixko kondea, Lantzelot Nafarroakoa, Gaztelako Joan II.a erregearen enbaxadoreak eta beste hainbat ordezkari bildu zituen Benedikto III.ari

Narbonan hitzarmena sinatu zuten Benedikto XIII.ari obeditzeari utzi egingo ziotela eta¹⁹.

Nafarroako Artxibo Nagusian bada 1415. urtean idatzitako agiri bat, non euskarazko zenbait hitz azaltzen baita. Latinez idatzita dago agiria, baina tartean euskal hitzak daude: “Pelegrinus dat gaudium apeçari ez oroc axeguin.” Pelegrinusek (notarioa zen nonbait) gustua egin zion apaizari, baina denek ez zuten atsegin hartu²⁴.

9.6. 1416. URTEA

9.6.1. Zumaia eta Getaria auzitan

1416-V-2an, Zumaiako Santiagoko ermitaren ondoren, hondartzan, Joan Martinez Ezurikoa (oraingo Aizarnazabalgo Etxubikoa) eta Sebastian Kanalekoa eskribauek Zumaiako eta Getariako hiribilduen arteko ituna idatzi zuten. Egun bat lehenago Getariako Kontzejuak ahalordea eman zion Joan Amilibiari Getariako ordezkari izan eta zumaiarrekin hitzarmena sina zezan. Getariarrek ziotenez, Santiagoko hondartzaren eta itsasadarraren jurisdikzio eta erabilpenari buruz auzia zuten bi hiribilduek Gipuzkoako alkate nagusi Joan Perez Bergarakoa batxilerraren aurrean. Gastuak eta kalteak aurrezteko, ordea, bi hiribilduek adiskidetasun-konponketa egin nahi zuten.

Beraz, Getariatik Martin Joan (Amilibikoa) eta Zumaiatik Joan Migelez Zumaiakoa ordezkari zirela, honako baldintza hauek zituen hitzarmena egin zuten:

- Errio edo itsasadarrean eta kanalean bi hiribilduetakoek egin ahal izango zuten arrantzan.
- Jurisdikzioa Zumaiarena izan arren, bi hiribilduetakoek aske nabigatu ahal izango zuten itsasadarrean eta kanalean.

- Santiagoko hondartzan itsasbeheran urpean geratzen ez zena bi hiribilduena izango zen, baina urak itsasgoran mende hartzen zuena Zumaiako jurisdikziokoa izango zen. Zumalegitik zetorren uretik hasi eta Kanalean Orroagako (oraingo "Orruako") lehen puntarainoko aldeari zegokion baldintza hau.

- Santiagoko ermita eta bertako serora-etxea Zumaiarena baino ez zen izango.

- Hondartzako garoa Zumaiarena izango zen, baina hondartzan ez zen ezer eraikiko bi hiribilduen baimenik gabe.

- Santiagoko hondartzan egindako salerosketen gaineko zerga Zumaiaren ala Getariaren (edozein hiribildutan) ordaindu ahal izango zen.

- Kanalean zegoen nasa Zumaiak, berak ordainduta, kendu egingo zuen, eta aurrerantzean itsasadarrean nabigatzeko edo arrantza egiteko oztopo zen nasarik ez zen eraikiko. (Nasak batez ere izokinak harrapatzeko eraikitzen zituzten).

9.7. irudia. Zumaiako itsasadarra.



Agiri honetan lekuko, besteak beste, Fernando Iraeta, Zumaiaiko probestua, azaltzen da. Zestoako Iraetakoa zen, beraz, Zumaian bizi eta hango probestu zena.

Itun hori sinatuta Zumaia Santiago hondartzaren zati handi bat bereganatzea lortu zuen, lehenago Getariarena izan bazen ere²⁵.

Itsasadarra batetik Oikiako Mantzizidorreraino eta bestetik Narruondoraino iristen zen. Padura aberatsa osatzen zen Legazpi (edo oraingo Urola) ibaiaren eta Arroaerrekaren ibilguen azken zatian²⁶. Horregatik bi puntutaraino heltzen zaizkio Zestoari itsasoko urak: Beduaraino batetik, eta Narruondoraino bestetik.

9.7. 1417. URTEA

9.7.1. Azkoitiko Batzar Nagusiak

1417. urtearen hasieran, urtarrilaren 15ean eta 16an, Gipuzkoako Batzar Nagusiak ospatu ziren Azkoitian, Joan Perez Bergarakoaren, Gipuzkoako alkate nagusiaren, etxean. Fernando Perez Aiarakoa Gipuzkoako korrejidore eta merio nagusiaren ordezkari ere bazen aipatutako Joan Perez.

Gipuzkoako hiribildu eta Alkatetza Nagusietako prokuradoreak elkartu ziren Azkoitian, eta Zestoatik Migel Martinez Ezenarrokoa (edo Zezenarrokoa) joan zen. Han, otsailaren 15ean, Gaztelako Joan II.a erregeak Valladoliden 1416-VIII-18an egindako eskea erakutsi zuten, non foru-zerga kobratzeko baldintzak zehazten baitziren.

Hurrengo egunean, otsailaren 16an, Gipuzkoako hamahiru hiribildutako prokuradoreek (Zestoako Migel Martinez Ezenarrokoa ere tartean zela) zerga hura ez ordaintzeko arrazoiak azaldu zituzten. Gipuzkoako biztanleak aitonen seme edo kapare ziren, eta,

9.6.2. Benedikto XIII.a bazter utzirik

Nafarroako erreinuak, eta Iruñeko elizbarrutiak, 1416-V-18an utzi zion Avignongo Benedikto XIII.a aita santuari obeditzeari.

Aurreko urtean Narbonan aipatutako hitzarmena egin zuten Gaztela, Nafarroa, Aragoi, Eskozia eta abarretako ordezkariak, eta Konstantzako Kontzilioak hitzarmena onartu egin zuen 1416-II-4an. Karlos III.a erregeak, aurrez erreinuko Gorteak bildu ondoren, Lizarrako elizan Gorpuzti egunez (maiatzaren 18an) aldarrikatu zuen Nafarroako erreinuak Avignongo Benedikto XIII.a bazter utzi zuela¹⁹.

ondorioz, ez zegokien zergarik ordaintzea. Joan II.a erregearen guraso eta arbasoek ere eskatu izan zuten zerga hura, baina ongi informatu zirenean eskea erretiratu egin zuten.

Alvar Rodriguez zerga-biltzailea ez zen gustura, eta bere protesta egin zuen, baina zergarik ez zen ordaindu. Batzarreko aktetan lekukoetako bat Joan Lopez Iraetakoa izan zen (1413. urteko atalean aipatu genuena)¹³.

Azkoitiko Batzar Nagusietan zergak ez ordaintzeko agiria honako hamahiru herri hauek aurkeztu zuten: Donostia, Hernani, Zumaia, Usurbil, Zestoa, Azkoitia, Azpeitia, Deba, Elgoibar, Eibar, Elgeta, Urretxu eta Zumarragak. Hauek 1391 eta 1398. urtetan zergarik ez ordaintzeko ez ziren bildu. Dena den, kapare izateak zergak ez ordaintzeaz gain bazuen beste abantaila bat ere. Hain zuen, pertsona kapareari ezin zitzaion oinazea ezarri aitortpena egin zezan¹⁰.

9.7.2. Gasteizko Ermandadea eta Zismaren amaiera

1417. urtean Gasteiz, Agurain eta Trebiñuko hiribilduek Ermandadea osatu zuten, eta erregeak Ordenantzak onetsi egin zizkien. Arabako Lur zabaleko herri eta herrixkei ere Ermandadera biltzeko gomendioa egin zitzaien, baina ez zen horrelakorik gertatu¹¹.

1417. urtean Alemaniako Konstantza hirian Elizaren Kontzilioak jarraipena izan zuen, zismari amaiera eman nahian. Maiatzaren 31n Kontzilioak Baionako legezko apezpiku bakartzat Gilen Arnalt Labordakoa izendatu zuen. Lehenago Pedro izan zen apezpiku, Pisako Joan XXIII.aren mendekoa.

Konstantzan kardinalak eta erreinuetatik joandako ordezkariak eztabaida luzeak izan zituzten Aita Santu berri eta bakarria hautatzeko prozedurari buruz. Ekainaren 25ean Nafarroak, Gaztelak eta Aragoik onartu egin zuten aho batez kardinalak proposatutako bidea. Gainera, Benedikto XIII.a kargutik kentzen saiaturako zirela agindu zuten. Uztailaren 16an gauzatu zuten agindua.

Eztabaida handi eta gogorren ondoren, Aita Santua hautatzeko eraz ados jarri ziren: konklabean nazio bakoitzeko sei diputatuk eta kardinalak parte hartuko zuten. Kardinalen botoen eta nazio bakoitzeko botoen bi herenak lortzen zituena izendatuko zuten Aita Santu. Konklabeke zaindari Fernando Perez Aiarakoa, Gipuzkoako korrejidore eta merio nagusia, izan zen. Nafarroako Karlos III.a erregeak bizialdirako Oteitza, Villatuerta eta Legardetako zergak eta bailegoa eman zizkion Aiarakoari, egin zizkion zerbitzuak eskertzearren.

1417-XI-11n, konklabea hasi eta hiru egunera Odone Colonna kardinala hautatu zuten Eliza katolikoaren buru bakartzat. Martin V.a aita santua izan zen. Aita Santu berriak konkordatu egin zuen Frantzia, Italia eta Espainiako nazioentzat, non kalonjeek apezpikua aukeratzeko eskubidea izango

baitzuten. Iruñeko elizbarrutian kalonjeek behin baino ez zuten eskubide hori erabili ahal izan (1420an)¹⁹.

Zestoako parrokiak, beraz, denbora luzez Avignongo Aita Santuen mende egon ondoren, 1417. urtean Erromako Martin V.a hartu zuen nagusitzat.

9.7.3. Altzolarasko eta Lasako burdinolak

1417. urte inguruan Pero Lopez Bergarakoa eskribauak Zestoan agiri bat idatzi zuen (ikus [XV. m. 8] agiria). Altzolarastan Bekola burdinolako Otxoa Lopez Olazabalgoa hila zen, eta oinordetzan Elbira Lopez Altzolaraskoarekin izandako Joan Lopez Olazabalgoak eman zion etxeari jarraipena. Joan Lopez semea Maria Gartzia Lasakoarekin ezkontzekoa zen, Otxoa Lopez aita zenaren eta Joan Beltran Iraeta (osaba), Joan Beltran Altzolarats (osaba) eta Maria Lopez Iraetakoaren (izeba) borondateari jarraituz. Azken hiru hauek aita zenaren testamentu-betearazle ziren.

Maria Gartzia Lasakoaren gurasoak Joan Gartzia Lasakoa eta Maria Gartzia Balluibarkoa ziren. Joan Gartziak alabari dote gisa 500 kintal burdina barra biribiletan emango zizkion, baina lasaotarrak 100 kintal aurreratu egin zizkion senargaiari, honek Altzolarasko burdinola konpon eta horni zezan. Gainerako 400 kintalak ezkondukoan emango zizkion. Joan Lopez Olazabalgoak jasotako ehun kintalen ordainagiria eman zion, eta aitagarinreba izango zuenaren aurka ama eta biok ez zirela inola ere joango agindu zuen. Ehun kintalei zegokien gaian izan zitzakeen eskubide guztiei uko egin zieten ama-semeek. Agirian lekuko gisa agertzen dira Joan Martinez? Iribarrengo eta Joan Lopez Aizarnatekoa.

Aipatutako [XV. m. 8] agiri honi, erromantzez idatzia izan arren, euskal joskerazko formak maiz ikusten zaizkio. Bestalde, azpimarratzekoa da garai hartan landutako burdinazko barrak diru gisa erabiltzeko zuten ohitura.

9.8. 1418. URTEA

9.8.1. Izurritea, Nafarroako Foru Hobekuntza, etab.

1418. urtea ez zen ona izan Gipuzkoako zenbait herri-erentzat. Getarian, esaterako, izurri beltza izan zuten¹⁶, eta Seguran ere bai. Gainera, Gipuzkoan gosetea izan zuten zereal faltan¹⁵.

1418-VI-2an Gaztelako Joan II.a erregearen ama, Katalina Lancasterkoa, hil egin zen. Harrezkero Ahaide Nagusiek eta jauntxoek bidegabekeria ugari egin zuten. Biztanle xumeak mendean hartu eta esklabo gisa erabiltzen zituzten. Etxeak erre eta odola ugari isuri zen²³.

Nafarroan Karlos III.a erregeak egoera hobeto kontrolatzen zuen 1418. urtean. Erreinurako lege eta

Ordenantzak egiten saiatu zen. 1418. urtean, adibidez, Nafarroako Foruen Hobekuntza prestatzeko ekimena sustatu zuen⁷.

Iruñeko elizbarrutian, berriz, Eliza katolikoaren zisma amaituta, Lantzelot Nafarroakoak Martin V.a aita santu berriarengandik tituluak lortu zituen: Iruñeko katedraleko ganberako maila edo dignitatea eta Alexandriako patriarka ohorezko titulua. Martin V.ak, gainera, Erreterian parrokia eraiki zenean sortutako auzi bat gertutik azter zezatela agindu zuen. Benedikto XIII.aren garaian Baionako Pedro apezpikuak parte hartu zuen lehen auzi hartan¹⁹.

9.9. 1419. URTEA

9.9.1. Nafarroako artzapezpikutegia, Donibane-Lohizune sutan, etab.

1419. urtean, Elizaren zisma amaitu ondoren, Karlos III.a erregeak Martin V.a aita santuari (lehenago 1405ean Benedikto XIII.ari bezalaxe) Nafarroako erreinuan artzapezpikutegia sortzeko proiektua bidaltzea erabaki zuen. Guztira lau elizbarruti izango zituen Nafarroak, 1405. urteari dagokion atalean adierazi genuenez. Dena den, 1419. urteaz gero agirietan ez da proiektuari buruzko inolako aipamenik azaltzen¹⁹.

1419. urteko martxoaren 7an Gaztelako Joan II.a erreinua gobernatzen hasi zen. Hamalau urte besterik ez zuen. Horregatik, ordura arte erregeordeek agindu zuten erregearen izenean.

Urte hartan Gaztelako erreinuaren itsasontziek, Frantziako indarren laguntzaz, ingelesei aurka egin zieten aspalditik ingelesek mendean zeukaten

Lapurdin. Abuztuaren 14an Baionari eraso zioten, eta Donibane Lohizune eta Biarritz erre egin zituzten. Inguruko sagastiak hondatu eta beste hainbat kalte eragin zuten. Gipuzkoarrak ere hantxe ziren erasoan, Fernando Perez Aiarakoa 8.000 soldaduren kapitain zela. Gipuzkoako korrejidore Gonzalo Morok ere parte hartu zuen borroka haietan. Halaber Debako Fernando Ruiz Irarrazabalgoak, bere itsasontzia berrogeita hamar soldadurekin eraman zuelako⁹.

Garai hartan Ingalaterrak zituen itsasontzi handienak. Urte batzuk lehenago 200 edo 300 tona edo upelekoak zituen, baina 1419. urtean 1.200 tona edo upelekoa egin zuten²⁷.

1419an Gaztelako Joan II.a gobernatzen hasi zenean, Madrilgo Gorteetan Bizkaiko Ermandadea debekatu egin zuen¹¹. Erregearen agiriak lekuko gisa sinatzen zituenetako bat Pedro III.a Belez Gebarakoa zen,



9.8. irudia. Zarauzko Andre Mariaren parrokia. Zarautz-ganboatarren hilobia.

Oñatiko jauna. Jaun honek, 1419-XII-11n, Arabako Gebaran Lope Gonzalez Herediakoari ahalordea eman zion Zarauzko parrokiara joan eta haren patronatua gebaratarraren izenean har zezan.

Lope Gonzalez ezkutaria Zarautzen 1419-XII-18an aurkeztu zen, baina zarauztarrek ez zuten ontzat hartu, patronatua Pedro Ortiz Zarauzkoarena (hamabost egun lehenago hil zenarena) zela eta. Zarauzko oinetxeko oinordekoa Joan Peña zen, eta honen aita Martin Gartzia Legoiagakoak ere ukatu egin zuen patronatua Pedro III.a Belez Gebarakoari zegokiola. Hala ere, Lope Gonzalezek Errodrigo abadea izendatu zuen elizako apaiz, eta honek meza eman zuen bertako kaperan. Zarauzko Kontzejuak gorabeherak izan zituen Lope ezkutariarekin patronatuaren jabetzaz. Pedro Ortizek emazte Urraka Belez Gebarakoak bere dote gisa ekarrita omen zeukan patronatua. Lope Gonzalez Herediakoak zioenez,

ordea, seme-alabarik izan ez zutenez gero, patronatuak lehengo enborrera itzuli behar zuen².

Gebaratarrekin eta Zestoarekin zerikusia duen pertsonaia bat ere azaltzen zaigu 1419-XII-12ko Arrasateko agiri batean. Arrasateko Pedro Santxez Quadra-ko prokuradoreak eta Garagartza, Udala, Eremizketa, Gesalibar eta abarreko ordezkariak auzia zuten leku horiek Arrasateren jurisdikziokoak ziren ala ez erabakitzeke. Agirian, lekukoetako bat Pero Lopez Barrundiakoa da, Zestoako auzotarra (“vesino de Çestona”)²⁸. Hain zuzen Arabako Barrundiko Udalean zegoen Gebarako gaztelua (orain gazteluaren aurriak daude), eta handik (edo Arrasatetik?) etorriko zen Pero edo Pedro Lopez Zestoara bizitzera. Hain zuzen 1410-II-26ko Lasako agirian ere azaldu zitzaigun Pero Lopez hau, eta han eskribaua zela esaten da (ikus [XV. m. 5] agiria).

9.10. 1420. URTEA

9.10.1. Ahaide Nagusiak borrokan

1420-XII-25ean, Eguberri egunean, ilargi betea zen, eta Oñatz-Azpeitia inguruan zeuden ganboatarrak: Olaso, Balda, Zarautz, Iraeta eta Antxieta etxeetakoak. Ladron Balda buru zela, Fernando Ganboa eta gainerako ganboatarrak egunsentirako iritsi ziren Lazkaora. Han Lazkaoko dorretxeari eraso eta hamar oñaztar hil zituzten, tartean Martin Lopez Lazkanokoa (Joan Lopez Lazkanokoa Ahaide Nagusiaren anaia gaztea) zela. Bi urteko umea amari besoetatik kendu eta hil egin zioten. Joan Lopez Lazkanokoak erre kara jauzi egin eta ihes egitea lortu zuen.

Joan Lopez iheslariak Beasaingo Igartzan eta Arriaranen laguntza eskatuta, Azpeiti aldera harro

zihoazen ganboatarrei gogor eraso zien. Murumendiko aldapetan eta Matxinbentako Marturion 150 bat ganboatarrak hil zituzten²⁹. Haietako bat Ladron Baldaren anaia Fortun edo Ortuño zen¹¹. Gero Azkoitiko Baldaraino iritsi ziren oñaztarrak, eta han zeudenak hil egin zituzten. Baldan bazkaltzeko zeukatena jan egin zieten, eta pertzak isekaz buruz behera utzi zituzkien. Azkenean, bertako dorretxeari su eman eta alde egin zuten.

Hori guztia gertatu eta gero, Lazkao, Loiola eta Igartzako jaunak elkarrekin haserretu egin ziren. Hirurak oñaztarrak eta lehengusuak ziren, hau da, Joan Lopez Lazkanokoa, Lope Gartzia Loiolakoa eta Joan Lopez Igartzakoa. Loiolakoak eta Igartzakoak ez zioten Lazkaokoari oñaztarren buru izatea aintzat har-



9.9. irudia. Azkoitiko Balda jauregia.

tzen, eta Lazkaokoa Ladron Balda ganboatarrarekin (etsai izandakoarekin) elkartu zen. Orduan Loiolako dorretxea inguratu eta bonbarda edo kanoi handiaz eraso zioten. Loiolako dorretxeak, ordea, horma sendoak izaki, zutik eta osorik iraun zuen. Orduan Beasaingo Igartzara jo zuten, eta Joan Lopezi etxea eraitsi egin zioten³⁰. Bertan zeuden guztiak hil zituzten. Bonbardaz hormak lehertu eta etxeari su emanda dena kiskali zuten²⁹.

Dena den, elkarren etsai izandako oñaztarrak bildu egin ziren gero ganboatarren aurka³¹.

Zestoako Iraetako Ahaide Nagusia beti ibili zen ganboatarrekin; baita 1420ko Lazkaoko dorretxeari egindako erasoan ere. Ez dakigu urte hartan Iraetako jauna nor zen. Orain arte Joan Beltran azaldu zaigu oinetxeko buru, baina Joan Erentxun zestoar historia-lariaren iritiz Fortun Santxez Iraetakoa zen 1420an Lazkaora bere soldaduekin joan zena³².

9.10.2. Zestoako lilitarrak, Iruñeko apezpiku berria, etab.

Lehen ere aipatu genuen Joan Beltran Lili 1400. urteko berri eman genuenean, baina badirudi 1420. urte

inguruan ezkondu zela Katalina Hurtado Mendozakoarekin. Hiru seme-alaba izan zituzten: Martin, Enrike eta Domenja³³.

Nafarroarentzat 1420. urtea ez zen ona izan osasun aldetik. Izurri beltza izan zuten⁷. Gipuzkoan ere, 1420. urtean eta hurrengoetan (Gonzalo Moro korrejidore zelarik) hasi zen biztanleria ugaltzen, lehenagoko urteetako murrizte-joerari buelta emanda¹⁵.

Getarian, bestalde, Salbatoreko eliza gotikoa amaituta zegoen 1420. urtean. Lehenagoko eliza gotiko zaharraren gainean eraiki zuten¹⁶. Bai Getaria eta bai Zestoa, lehenago ere esana dugunez, Iruñeko elizbarrutikoak ziren, eta 1420an, hain zuzen, Lantzelot Nafarroakoa (elizbarrutiko burua) urtarrilaren 8an hil egin zen Erriberrin. Diru-gosea eta luxu-zaletasuna izan zituen bizilagun, eta zor handiak utzi zituen. Baita sasiko semea eta alaba ere. Antso Santxez Oteitzakoa izan zen 1420-III-27az gero (1425. urtera arte) Iruñeko apezpiku, Martin V.a aita santuak izendatuta¹⁹.



9.10. irudia.
Lazkao. Infantadoko
dukearen jauregia.

9.11. BEDERATZIGARREN KAPITULUKO OHARRAK

¹ ENRIQUEZ FERNANDEZ, J. eta beste. Colección documental del Archivo Municipal de Lequeitio. Tomo I. (1325-1474). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 37. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1992. (117, 120, 123. or.).

² AIERBE IRIBAR, R. M. Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (s. XI-XVI). I. Estudio. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1985. (164, 165, 167, 170-172. or.).

³ AIERBE IRIBAR, R. M. Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (s. XI-XVI). II. Documentos. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1985. (83-85. or.).

⁴ ORELLA UNZUE, J. L. *Los orígenes de la Hermandad de Guipúzcoa. Las relaciones Guipúzcoa-Navarra en los siglos XIII-XIV*, in Cuadernos de sección. Historia-Geografía, 3. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1984. (92. or.).

⁵ AIERBE IRIBAR, R. M. Servicio Forestal de Gipuzkoa. I.- Desde los orígenes a 1925. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2005. (75. or.).

⁶ ZABALO ZABALEGI, F. J. *El Reino de Navarra en la Baja Edad Media. Algunas consideraciones*, in Historia del Pueblo Vasco, 1. Erein. Donostia, 1978. (147. or.).

⁷ LACARRA, J. M. Historia política del Reino de Navarra desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla. III. alea. Aranzadi argit. Iruñea, 1973. (161, 194, 214. or.).

⁸ ALDABALDETREKU, R. Debako udalerría. Alderdi historikoak bertako dokumentuetan oinarriturik (1294-1894). Debako Udala, 1996. (80. or.).

⁹ LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. III. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1968. (49, 68. or.).

¹⁰ LEMA PUEYO, J. A. “*Por los procuradores de los escuderos hijosdalgo*”: *de la Hermandad General a la formación de las Juntas de la provincia de Guipúzcoa (siglos XIV-XVI)*, in El triunfo de las elites guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539). Iturriak, 3. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2002. (67, 70. or.).

¹¹ ORELLA UNZUE, J. L. Instituciones de Guipúzcoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (75, 99, 103, 274. or.).

¹² BARRENA OSORO, E. Gipuzkoako Komunikabideen Historia. 1/ Aintzinaroa eta Ertarora. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1991. (115. or.).

¹³ AIERBE IRIBAR, R. M. Documentación Medieval del Archivo Municipal de Azkoitia (m.s. XIII-1500).

Fuentes documentales medievales del País Vasco, 45. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1993. (42-45, 85, 86, 88, 89. or.).

¹⁴ MARTINEZ DIEZ, G. eta beste. Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1370-1397). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1996. (422. or.).

¹⁵ TENA GARCIA, M. S. La Sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500). Donostia, 1977. (249-251, 374. or.).

¹⁶ TXUEKA ISASTI, F. *Getariako erregearen balea eta Donostiako probestua*, in Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. Boletín LXIV-1-2008. Donostia. (116, 144. or.).

¹⁷ ALBIZU, X. eta beste. Euskal Herriko Historia I. Gaiak argit. Donostia, 2004. (152. or.).

¹⁸ MARIN PAREDES, J. A. “Semejante Pariente Mayor”. Parentesco, solar, comunidad y linaje en la institución de un Pariente Mayor en Gipuzkoa: los señores del solar de Oñaz Loyola (siglos XIV-XVI). Ikerlanak, 5. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1998. (175, 176. or.).

¹⁹ GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona. s. XIV-XV. II. alea. Iruñea, 1979. (416-421-426, 436-455, 457, 458, 466, 470. or.).

²⁰ ELOSEGI, J. *Juntas Generales y Particulares de Guipúzcoa. Índice de las celebradas en los siglos XIV y XV*, in Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. XXXIV. urtea, 3. eta 4. koadernoak. Donostia, 1978. (541, 542. or.).

²¹ REKALDE RODRIGUEZ, A. eta ORELLA UNZUE, J. L. Documentación real de la provincia de Guipúzcoa. Siglo XV. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 13. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1988. (3-11. or.).

²² GOMEZ PIÑEIRO, F. J. eta beste. Historia de las Juntas Generales y Diputación Foral de Gipuzkoa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1992. (22, 30-32. or.).

²³ AROZENA, I. *Los Parientes Mayores y las guerras de bandos en Guipúzcoa y Vizcaya*, in Historia del Pueblo Vasco, I. Erein argit. Donostia, 1978. (163, 168. or.).

²⁴ MITXELENA, K. Textos arcaicos vascos. Minotauro argit. Madril, 1964. (59. or.).

²⁵ ODRIOZOLA OIARBIDE, L. Historia de Zumaia. Zumaiako Udala. Zumaia, 1988. (66, 67, 233, 470-473. or.).

²⁶ ELUSTONDO, A. *Zumaiako Santiago (XV. m.)*, in Zumaia 650 urte. Hitzaldiak. Zumaiako Udala. Zumaia, 1999. (115, 116. or.).

²⁷ CARO BAROJA, J. Vasconiana. (De Historia y Etnología). Minotauro argit. Madril, 1957. (116. or.).

²⁸ CRESPO RICO, M. A. eta beste. Colección documental del Archivo Municipal de Mondragón. Tomo II. (1400-1450). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 67. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1996. (45-49. or.).

²⁹ XX. Arantzazuko Amaren Egutegia, 2008-VI-20, 2008-VII-4.

³⁰ XX. 3. Extractos de noticias relativas a los Bandos de los Parientes Mayores de los años 1420, 1446 y 1456. Loiolako Artxibo Historikoa. Loiola familia 0002/0001. (Isastiren eranskina, 20). Nivel de descripción: 07. Expediente/Item. (Oharra: orrialde hauek letra modernoaz eskuz idatzitako geroko kopiak dira).

³¹ FERNANDEZ DE LARREA ROJAS, J. A. *Los señores de la guerra en la Guipúzcoa bajomedieval*, in *Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548)*. Iturriak, 2. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2000. (28. or.).

³² ERENTXUN ONZALO, J. Arrona, Aizarna, Oiquina, Aizarnazabal, Iraeta, San Miguel de Artadi. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1975. (55. or.).

³³ XX. Arboles genealógicos de los poseedores de Lili. San Telmo Museoa. Donostia. Lilitarren artxiboa. 22. paper sorta [22.5]. (2, 3. or.).

